



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasun Sailburuordetza
Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático

DEKRETU-PROIEKTUA, NATURA 2000 SAREKO GASTEIZKO MENDI GARAIK (ES2110015) HANDITZEKO ETA EREMU HORRETAKO HELBURUAK ETA KONTSERBAZIO-NEURRIAK BERRIKUSI ETA EGUNERATZEKO

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Gasteizko Mendi Garaiak Natura 2000 Sareko eremua handitzeko dekretu-proiektua egiten hasteko asmoa du, gaur egun KBE izendatuta dagoena baino eremu zabalagoa biodibertsitatea babesteko eta, ondorioz, zabalagoa den eremu horretara egokitzeko eremuan aplikatu beharreko kontserbazio-helburuak eta -neurriak eguneratzeko eta egokitzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan 1. apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik, lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egingo da administrazio eskudunen web-atariaren bidez, eta, bertan, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik ordezkagarrien iritzia jasoko da honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoei buruz.
- b) Onartzeko beharrari eta egokitasunari buruz.
- c) Arauaren helburuei buruz.
- d) Posible diren bestelako aukera erregulatzaileei eta ez-erregulatzaileei buruz.

Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko jarraibideak onartu ziren, eta horietan zehaztu zen aurretiazko kontsultaren izapidea xedapen orokorra izapidetzea sustatzen duen organo edo zuzendaritza-zentroak bete ahal izango duela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan iragarkia jarrita.

Donostia – San Sebastián, 1 – Tef. 945 01 99 02 – Fax. 945 01 9911 – 01010 Vitoria-Gasteiz





Aurrekoa betetze aldera, eta hura egin aurretik, honen bidez gonbidatzen ditugu herritarrak beren iritzia eman dezaten Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko den eranskinean jasotako informazioari buruz.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den egunean.

Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza

Sin.: ADOLFO URIARTE VILLALBA

(Sinadura elektronikoa)

KONTSULTA PUBLIKOA, NATURA 2000 SAREKO GASTEIZKO MENDI GARAIETAKO GUNEA (ES2110015) HANDITZEKO ETA HAREN HELBURUAK ETA KONTSERBAZIO-NEURRIAK BERRIKUSTEKO ETA EGUNERATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA EGIN AURREKOA

A) EKIMENAREKIN KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

Habitat naturalak eta basoko fauna eta flora kontserbatzeari buruzko 92/43/EEE Direktiba (Habitatari buruzko Direktiba) eta basoko hegaztiak kontserbatzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Direktiba (Hegaztiari buruzko Direktiba) aplikatuz, Natura 2000 Sarea sortu zen. Sare hori da Europako erakundeek eta herritarrek biodibertsitatearen kontserbaziorako egiten duten apustu nagusia, eta bere helburua da biodibertsitateari eustea, basoko fauna eta flora eta Europar Batasunaren intereseko habitatak kontserbatzeko esparru komun bat definituta; horiek guztiak bi direktiben eranskinetan ezarrita daude.

Gasteizko Mendi Garaiak Natura 2000 Sare Ekologiko Europarreko Garrantzi Komunitarioko Leku (GKL) gisa proposatu ziren 2003ko maiatzean, eta Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu ziren uztailaren 21eko 148/2015 Dekretuaren bidez; Dekretu horrek, halaber, erantzuna ematen dio apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 22. artikuluan ezarritakoari. Bestalde, Erakunde Harremanetarako sailburuordearen irailaren 7ko 18/2016 Ebazpenaren bidez, Gasteizko Mendi Garaiak Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) kudeatzeko jarraibideak eta neurriak argitaratu ziren, Arabako Foru Aldundiak onartutakoak.

Zehazki, Gasteizko Mendi Garaiak KBE izendatutakoak baino azalera handiagoan babestea aspalditik eskatzen da. Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak, 2021eko martxoaren 18ko saioan, legez besteko proposamena onartu zuen; proposamen horren bidez, Eusko Jaurlaritzari eskatu zitzaion azter zezala, inplikaturako udal eta kontzejuekin lankidetzan, Gasteizko Mendi Garaiak (ES2110015) KBE handitzeko aukera. Ildo beretik, Arabako Batzar Nagusiek 27/2021 mozioa onartu zuten, 2021eko martxoaren 24koa. Beraz, Gasteizko Mendi Garaiak Natura 2000 Sarearen espazioa handitzeko (ES2110015) eta haren helburuak eta kontserbazio-neurriak berrikusteko eta eguneratzeko espedienteak, Eusko Legebiltzarraren legez besteko proposamenari eta Arabako Batzar Nagusien mozioari erantzuteaz gain, biodibertsitatearen kontserbazioaren arloko Europako konpromisoak betetzen laguntzeko aukera emango du.

B) ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA

2020. urteko maiatzaren 20an, “2030erako Europako Biodibertsitate Estrategia. Natura gure bizitzetan itzultzea” deritzan estatategia onartu zen. Estrategia horren arabera, Europar Batasunean natura babesteko eta berreskuratzeko konpromiso nagusien artean, gutxienez lur- eta itsas-azaleraren %30 babestea eta lur- eta itsas-azaleraren %10 babestea daude.

Euskal Autonomia Erkidegoak gaur egun 165.917,55 ha ditu Natura 2000 Sarean sartuta, hau da, euskal lurraldearen hedaduraren %22,94. Ildo horretan, Gasteizko Mendi Garaiak KBEa handitzeak lagundu ahal izango du biodibertsitatearen kontserbazioaren arloko Europako konpromisoak betetzen.

Naturaren kontserbazioari buruzko Euskadiko legerian dauden naturagune babestuen artean, lehendik eratuta dagoen Natura 2000 Sareko espazioa zabaltzea erabaki da, honako arrazoi hauengatik:

- Biodibertsitatearen balioei garrantzi handiagoa emateko, Natura 2000 Sareak, elementurik baztertzen ez badu ere, hobeto fokalizatzen ditu babestu beharreko elementuak: Europar Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitatak eta flora eta fauna basatiko espezieak.
- Biodibertsitatearen kontserbazioaren ikuspegitik, parke natural batek baino berme handiagoa du, “ebaluazio egokia” aplikatzen baita.
- Ez du landa-garapena baztertzen, baina biodibertsitatearen kontserbazioari egiten dion ekarpenarekin erlazionatzen eta hobeto lotzen du.
- Europako finantzaketak Natura 2000 Sarean sartutako guneak hartzen ditu kontuan lehentasunez, eta ez beste babes-figura batzuk.
- Gasteizko Mendi Garaiak KBEa Europar Batasunaren intereseko basoak babesteko helburuarekin proposatu zen; baso horiek ere garrantzitsuak dira klima-alaketari dagokionez, karbonoa biltegitratzeko funtzioa betetzen dutelako, eta hura zabaltzeak helburu hori hobeto betetzea ahalbidetuko du.
- Lotura ekologikoa hobetzeko eta azpiegitura berdea zerbitzatzeko duten garrantziagatik.

C) ARAUAREN HELBURUAK

- 2030erako Biodibertsitatearen Europako Estrategiaren konpromisoa betetzen laguntzea: babestutako azalera % 30era zabaltzea eta lurraldearen % 10 hertsiki babestea.
- Europar Batasunaren eta Euskadiren intereseko basoen babesa hobetzea, azalera handiagoa babestuz. Babestu beharreko eremuan dauden baso mota batzuk, erkameztiak kasu, ez daude oso ordezkatuta Natura 2000 Sarean.
- Lurraldean konektibitate ekologikoa hobetzen eta Euskadin azpiegitura berdea ezartzen laguntzea.
- Epe luzera karbono-hustubideak handitzen laguntzea, baso-azalera handiagoa babestuz.
- Fauna basatiko espezieak hobeto kontserbatzen laguntzea, hala nola okil ertaina edo kiroptero mehatxatuak.

D) POSIBLE DIREN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK ETA EZ-ERREGULATZAILEAK

Aurreko ataletan azaldutako inguruabarrak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da dekretu-proiektua egitea, eta ez da bestelako irtenbiderik ikusten.